

Politikarien mahaia

Ekainaren 18an ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean
ORDUA: 18'30etatik 20ak arte

BERTARATUTAKOAK:

UDALA

Eneko Etxeberria	Alkatea (Bildu)
Aritz Epelde	Alkate ordea (Bildu)
Iñako Portilla	Zinegotzia (Bildu)
Manuel Unanue	Zinegotzia (Bildu)
Aitor Aranguren	Zinegotzia (Hamaikabat)
Aitor Gorrotxategi	Zinegotzia (EAJ-PNV)
Itziar Lasa	Zinegotzia (EAJ-PNV)

Izaskun Ceciaga	Ingurumen teknikaria/Tokiko Agenda 21

MINUARTIA ENEA/IKERTALDE

Ana López
Ainhoa Gea
Ainhoa Mitxelena

GAI ORDENA

1. Ekintza Planaren helburuak eta edukiak azaldu
2. Ekintza Planaren inguruko inpresioak eta ekarpenak jaso

LABURPENA

1. Prozesuaren egoerari buruzko azalpena

Laguntza teknikoak, Azpeitiko arlo sozial eta ekonomikoari buruzko Diagnostikoan oinarrituta, Ekintza Plan bat jada osatu dela aipatzen du. Prozesuren hasieran sortutako hiru mahaiekin batera (mahai politikoa, mahai teknikoa eta herritarren mahaia) lantzen ari dela azaltzen da, guztion ekarpenak jasoz.

Jarraian, Planaren egitura eta eduki nagusiak azaltzen dira. Plana ondoko 5 lerro estrategikoetan egituratzen da:

- o **1. LERRO ESTRATEGIKOA:** AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ
- o **2. LERRO ESTRATEGIKOA:** HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ
- o **3. LERRO ESTRATEGIKOA:** HEZKUNTZA ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA ETA EUKARAREN SUSTAPENA
- o **4. LERRO ESTRATEGIKOA:** HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKI BAT DISEINATU ETA ESKAINI
- o **5. LERRO ESTRATEGIKOA:** ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIAL BAT SUSTATU, AZPEITIAK ORORI ETXEBIZITZA BAT IZATEKO AUKERA ESKAINIZ

Lerro estrategiko bakoitzak programa ezberdinak jasotzen ditu eta, hauen barne, ekintza zehatzak definitzen dira, guztira, 19 programa eta 114 ekintza proposatzen direlarik.

Laguntza teknikoak, Ekintza Plan guztia azaltzen du lerroz lerro. Jarraian, Planaren azalpenaren laburpena egiten da:

1. LERRO ESTRATEGIKOA: AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ

- Lehenengo lerro hau Ekintza Planean pisu handiena duena da, izan ere, datozen urteei begira udalerriko garapen ekonomikoa bultzatzeko planteamendua jasotzen du. Eskualde mailan sektore ekonomiko guztiak bultzatu eta hauen lehiakortasuna sustatzen laguntzen duten erakunde ezberdinak daude, ez ordea udal mailan, non ez dagoen sustapen ekonomikoari buruzko sail edo egitura propiorik. Horiek horrela, eta honen beharra sumatuta, lehenengo programa gainontzeko guztien oinarria dela azaltzen da.
- Ondoren, 1.2, 1.3, 1.4 eta 1.5 programek, udalerriko sektore ekonomiko ezberdinak bultzatzeko ekintzak jasotzen dituzte: nekazar eremuan, sektore industrialean, merkataritzan eta turismo arloan, hain zuzen ere.
- Azkeneko hiruek, orokorrean, sektore guztietan enplegua sortu eta lan merkaturatzea erraztu, ekintzailetasuna bultzatu eta iraunkortasun zein berdintasun baloreak enpresa arloan txertatzea dute helburu.

2. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ

- Lerro honetan sei programa planteatzen dira. Honetan ere, lehenengo programak udal barneko egitura eta, batez ere, sail honen irudia hobetzeari buruzko ekintzak jasotzen ditu. Zentzu honetan, diruz laguntzeaz gain, herritarrei beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen zaizkiela ezagutarazi nahi zaie herritarrei.
- Ondorengo programak gizarte segmentu ezberdinetara zuzentzen dira: hirugarren adina, haur, nerabe eta gazteak eta immigranteak besteak beste. Immigranteei dagokienez,

politika asistentzialetatik politika interbentzionistetarako pausua ematean jartzen da arreta.

- Bestalde, parekidetasunaren aldeko apustu sendoa egitea proposatzen da, udal barnetik hasita. Zentzu honetan, gai hau guztiz zeharkakoa denez, Plan osoan zehar berdintasun ikuspegia txertatu dela aipatzen da.
- Honetaz gain, herritarren artean zibismo baloreak eta elkarbizitza sustatzeko ekintza ezberdinak ere proposatzen dira.

3. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA ETA EUKARAREN SUSTAPENA

- Lerro honek 2 programa ditu, lehena garapen profesionala eta langabetuen lan merkaturatzea errazteko dagokion heziketa sustatzea bilatzen duena eta, bigarrena, euskararen arloan aurrerapausoak ematea bilatzen duena.
- Hezkuntza eskaintzari dagokionez, hau tokiko enpresen beharretara ahalik eta modu aproposenean egokitzea planteatzen da, lanbide heziketan arreta berezia jartzen delarik. Gai hau parte-hartze saioetan behin eta berriz atera den puntu nagusienetarikoa bat dela gogoratzen da.
- Euskarari dagokionez, Azpeitian euskararen erabilera oso altua dela aipatzen da (Euskadi mailan altuenetarikoa bat). Honek beste tokietan eman ezin diren pausoak emateko aukera eskaintzen du. Zentzu honetan, euskararen erabilera lan munduan sustatzea proposatzen da, hau, euskara gutxien erabiltzen den eremua baita. Honetaz gain, 4. profilerak heltzeko baliabideak hala nahi duen herritar ororen esku jarri eta sustapen lana egitea planteatzen da.

4. LERRO ESTRATEGIKOA: HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKI BAT DISEINATU ETA ESKAINI

- Lerro honek ere bi programa jasotzen ditu; bata herri mailan kultura sustatzeko helburua du eta, besteak kirol ekipamenduak eta eskaintza egungo eskaerei egokitzea.
- Kultura arloan, programazio bateratua lantzean jartzen du atentzioa (Kultura saila, Sanagustin eta gainerako elkarte eta sailek elkarlanean), bertan Kultur Mahaiaren inplikazioa eta jarraipen zuzena bultzatuz.
- Kirol eremuari dagokionez, alde batetik Plan bat garatzea proposatzen da, gai honetan jarraitu beharreko ildo edo lerro nagusiak eta plangintza zehatz bat finkatzeko asmoz. Bestalde, beste ekintzen artean, kirol eskaintza egungo eskaerari egokitzea planteatzen da.

5. LERRO ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIAL BAT SUSTATU, AZPEITIAK ORORI ETXEBIZITZA BAT IZATEKO AUKERA ESKAINIZ

- Azkeneko lerro honetan programa bakar bat dago, etxebizitza sozialak eta alokairua sustatzeko ekintza ezberdinak jasotzen dituenak.
- Arlo honetan, Azpeitian etxebizitzaren alokairurako ohitura gutxi dagoela aipatzen da. Honen inguruko sentsibilizazioa indartzea planteatzen da. Eta honekin zuzenean lotuta,

udalerrian hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea errazteko neurri ezberdinak sustatzea proposatzen da.

1. Ekintza Planaren inguruko ekarpenak jaso

Ondoren, ekarpenak egiteko tarte bat irekitzen da.

Alkateak azaldutako planteamenduarekin orokorrean ados dagoela aipatzen du. **Egoera ekonomiko larriari** gogor heldu behar zaiola komentatzen du, berak lehenengo lerro horrek pisu handieneko lerroa izatea guztiz aproposa ikusten duela esanez. Honen inguruan, udalak berak bere egiturari buruz egin behar duen hausnarketari buruz komentatzen da, udalerriko sustapen ekonomikoa bertatik kudeatzeko gai izatearren, eskualdeko entitateekin elkarlanean.

Ondoren, turismoaren ildoan, **Inaziotar Bideak** izango duen garrantzia azpimarratzen du, 2022an Loiolako Inaziok Loiolatik Manresara egin zueneko bidearen 500. urteurrena izango dela gogoratuz. Turismoa Azpeitira erakartzeko lan ildo honetan lantzea guztiz garrantzitsua dela aipatzen du eta horretarako udala lehenengo pausuak ematen hasi dela komentatzen du.

Jarraian, Aitor Aranguren bere iritzia eta Planaren inguruan berak egiten duen balorazioa zein den galdetzen zaio. Honek, Plana askoz gehiago eta sakonago landu behar dela uste duela aipatzen du eta **ildo nagusi batzuk faltan botatzen dituela** aipatzen du, ingurumenari lotutako gaiak hain zuzen ere. Honekin jarraitu baino lehen, laguntza teknikoak prozesua hasieratik nola planteatu zen gogorarazten du. Tokiko Agenda 21eko ingurumen Ekintza Plana indarrean dagoela azaltzen du (hondakin eta energiari buruzko lerroak eguneratuz) eta arlo soziala eta ekonomikoari buruzko Ekintza Plana onartzen denean, biak batu eta uztartuko direla argitzen du, Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa osatuz.

Honetaz gain, **Iraurgi Lantzen, Loiola Berrikuntza Fundazioa eta Ezagutza Guneak** egin berri duten **Kudeaketa Plana** ez dela azaldutako Planean jasotzen aipatzen du eta, bere ustez, bertan egon beharko lukeela komentatzen du.

Jarraian, bi elementu nagusi jartzen ditu mahai gainean: politikarien inplikazio eza eta plana aurrekontuekin lotura zuzena izan behar duela.

Politikarien inplikazioari dagokionez, prozesuaren hasieratik politikariak ez direla behar bezala inplikatu aipatzen du eta honek planaren erabilgarritasuna eta bere eraginkortasuna guztiz baldintzatzen duela esaten du. Alkateak politikarien inplikazioaren falta horrekin ere ados dagoela aipatzen du eta plana irekita dagoela aipatuz, beraien arteko eztabaida sakonago bat egiteko atea irekitzen du. Honekin lotuta, Plana aurrera eramateko benetako konpromisoa guztiz beharrezkoa dela aipatzen da. Zentzu honetan, laguntza teknikoak aurreko egunean teknikariekin egindako bileran gai hau ere atera zela azaltzen du. Bilera horretan, politikariek Plan honi benetako garrantzia edo babesa emango ote dioten zalantza mahai gainean jarri zen.

Aurrekontuekiko loturari buruz, laguntza teknikoak bere adostasuna azaltzen du eta Plan honen ezarpenean aurreikusitako kudeaketa eta segimendua nolakoa izango den azaltzen du. Ekintza Planaren gauzatze-maila neurtzeaz gain, urtero ze jarduerak jarriko diren martxan programatu eta hauek aurrekontuetan txertatu behar izango direla argitzen du, beraien gauzatzea bermatzearren.

Bestalde, ondoko ekarpen edo iradokizunak jasotzen dira:

- Enpresak ere prozesuan inplikatu behar izango liratekeela aipatzen da. Laguntza teknikoak “herritarren mahaian” sektore ekonomiko guztietako ordezkariak gonbidatuta izan direla komentatzen du eta baita sindikatuak ere. Azken hauek bilera hauetara etortzeko ohiturarik ez dutela azaltzen da eta, sektoreei dagokionez, prozesuan batez ere lehen sektorea ordezkatzan duten eragileak parte hartu dutela komentatzen da.
- Parte-hartzea nolakoa izan den galdetzen da. Laguntza teknikoak orain arte bi bilera egin direla aipatzen du, hurrengo egunean beste bat egingo dela eta oraindik azken bat egitea falta dela azalduz, guztira, prozesu osoan zehar 4 bilera egitea aurreikusita dagoelarik. Eragileak aukeratuta eta pertsonalki gonbidatuta izan direla aipatzen da, nahiz eta deialdi ireki bat ere egin den. Laguntza teknikoak, orokorrean, parte-hartze prozesuaren balorazio oso positiboa egiten duela komentatzen du.
- Zalantza bat jartzen da mahai gainean, gobernua aldatzen bada, etortzen diren besteek Plana ontzat emango al dute?

Azkenik, hurrengo pausuak zeintzuk diren azaltzen da. Alde batetik, teknikariek datozen 15 egunetan Planean jasotzen diren ekintzen deskribapena burutu behar dutela azaltzen da eta, bestalde, herritarrei Plan hori azaldu eta beraiekin batera eztabaidatuko dela aipatzen da. Horretarako hurrengo egunean bilera bat egingo da eta uztailaren lehenengo hamabostaldian, beste bat. Gauzak horrela, Ingurumen teknikariak lan hau egiteko udalak diru laguntza bat jaso duenez eta hau justifikatu egin behar denez, lana formalki uztailaren hirugarren asterako amaituta egon beharko lukeela aipatzen du.

Bertaratutakoei eskerrak emanez, bilerari amaiera ematen zaio.